

FUNTSEZKO BALIABIDEAK


Atal honetan, gure enpresaren funtsezko baliabideei buruz hitz egingo dugu. Hauek, hiru zatitan banatuko ditugu: baliabide fisikoak, intelektualak, eta finantzarioak. Baliabide fisikoetan, erosi edo kontratatu beharko ditugun gauza materialak aipatuko ditugu, intelektualetan berriz gure abileziak, esperientziak, ikasketak... Azkenik, baliabide finantzarioetan gure enpresari hasiera emateko beharko ditugun diru sarrerak aipatuko ditugu.

Gure produktua sortzeko funtsezkoak izango diren materialak hurrengoak dira: gailuaren plastikozko karkasa, gomazko botoiak, pantaila digitala eta barne osagaiak (plaka nagusia, prozesadorea, bateria). Gainera, produktua saltzerakoan gailua jarraibideekin batera kaxa baten barruan datorrenez, bi hauek eskuratzea funtsezkoa da. Baliabide guzti hauek, funtsezko elkarteak atalean aipatu dugu nola eskuratuko ditugun.

Hala ere, hauek ez dira behar izango ditugun baliabide material bakarrak, izan ere, taldearentzat ordenagailu pare bat behar dugu web gunea kudeatzeko, gailua programatzeko, hizkuntzak berritzeko...


Ordenagailuez gain, taldekide bakoitzak bere eskuko telefono pertsonala erabiliko du lanerako, hau da, bezeroekin harremanetan jartzeko edo beste enpresa batzuekin kontaktatzeko. Hauek ez ditugu ordaindu behar izango, enpresaren sorreraren aurretik ditugu eta.

Baliabide materialekin bukatzeko bigarren eskuko auto bat erosiko dugu. Autoa gure ondasunak garraiatzeko erosiko dugu eta "Coches.net"-en aurkitu dugu 6.050€-rengatik.



Garbi dago horrelako proiektu bat aurrera eraman nahi duen talde bateko partaideek nolabaiteko prestakuntza bat eduki behar dutela, horregatik, taldekide bakoitzak ikasketa batzuk jaso ditu, kontzeptu eta abilezia desberdinak eskuratuz. Hauek, jarraian eta banan banan aipatuko ditugu, taldekide horrek enpresan edukiko duen rola ulertzeko.

Amets Mendiaraz, txikitatik informatikan interesatua egon da. Horregatik, hainbat urte igaro ditu aplikazio eta bideojoko ezberdinen programazioan, arlo



honetan duen abilezia areagotuz. Beraz, funtsezko jarduerak atalean aipatu dugun lanpostua betetzeko prestakuntza eta interes ezinhobeak ditu.

Telmo Etxeberriak, negozioen kudeaketan eta lan harremanetan abilezia eta interes handia du, urtez aitaren fruterian lanean aritu da eta. Arloan duen esperientziak gain, giza harremanetarako eta komunikaziorako erraztasun handia du. Hauek, bere posturako baldintza ezinhobeak dira.

Iker Del Rio taldekideak, Telmoren moduan, giza harremanetan abilezia eta interes handia du, baina Telmok ez bezala, taberna batean aritu da lanean, etengabe jendearekin harremanetan egonez. Esperientzia honek irakatsitako kontzeptu eta abileziak direla eta, Ikerrantzat bezeroekin harremanaz arduratzea rol ezinhobeak dela uste dugu..



Azkenik, Markel Araguzo, enpresaren ekonomiaren kudeaketaz arduratuko da. Postu hau edukitzeko ezaugarri eta prestakuntza aproposenak dituen taldekidea da, betidanik ekonomian interesatuta egon da eta. Gainera, txikitatik matematiketan interes handia eduki du; hau, oso lagungarria izan daiteke postu hau edukitzerakoan.

Bukatzeko, enpresaren baliabide finantziarioak aipatuko ditugu. Hauek, ezinbestekoak dira gure proiektuan lehen pausuak eman ahal izateko. Lehenik, taldekide bakoitzak ekarpen ekonomiko bat egitea nahitaezkoa da, horregatik, hasiera batean bakoitzak 2.000€ jartzea adostu dugu lauron artean. Hala ere, horrekin nahikoa ez balitz, bankuari beste 10.000€-ko mailegu bat eskatzea pentsatu dugu. Beraz jasotako diru guztia elkartuz, proiektuari hasiera emateko aurrekontua 18.000€-koa izango da.

